

1917 urtean Mundaka-ra itzuli zan, eta arrezkero Bilbon eta Mundaka-n igaro zituan gaifierako urteak.

Gaztetatik asi zan etxean eta kalean ikasitako euskera obetzeko alegiñetan eta oso zalea zan meza-liburu, bertsot berri, aldizkari eta bestelako irakurgai guztietara. Berak aitortzen duenez Añibarro-ren "Esku-liburua" izan zuen "irakurgai eta irakaslerik atsegíñena". Erriko euskaldunen esaera, ipuin eta erre-frauak ere gogoko zituen.

1927 inguruan Bustintza-k eratutako euskerazko palindromo sariketara eun bat palindromo bialdu zituen, eta ordukiti aurrera Mundaka-n batutako albista, ipuin eta abar, astean astean, egunkarira bialtzen asi zan. Bere euskera lanak egunkarietan agertu izan dira beti: beren artean "Bertolda eta Bertoldin" —gero liburu baten batua—, "Bijar Doniane'rea" —liburu txiki batean gero argitaratua—, Jean Barbier-en ipuiñak Bizkaiko euskerara itzulita, eta ingle-setik artutako "Abere Ipuñak", "Abere Dontsuak" eta beste irakurgai batzuk, eta erderatik eta inglesetik eratutako "Euskal-Erriko Abere eta Piztiak". Azkenez Cardenal Gomá-ren "Los Evangelios Concordados" Bizkaiko euskerara itzuli zuen, Olabide-ren "Itun Berria" lagun zuela, eta oraindik argitaratu gabe dago.

Azken garaian euskerazko toki izenak estudiatzen aritu izan da eta EUSKERA aldizkari onetan argitaratu izan dira bere lanak.

JEAN ITHURRIAGUE (1896-1960)

Irulegi-n sortua zan 1896 urtarriaren 30-ean. 1960 azaroaren 9-an il zan.

Gazterik sartu zan Belloc-en bere eskolak egitera. Gerra denboran bururu-tu zituen aingo eskolak eta soldadu joan artean illabete batzuetan irakasle artu zuten. Armak artzera deitu zuten eta gudukatzera bialdu. Zauritua gertatu zan eta gerrako kurutzea eman zioten.

Gerra bukatu eta Bordelen eta Parisen liburuai eman zitzaien eta "licencié" errez atera zuen eta irakasle izan zan Chalon-sur-Marne irian.

1925-ean "Diplôme d'Etudes Supérieures de Philosophie" artu zuen.

1932-an "docteur en philosophie". Autatu zuen gaia: "Jainkoa eta arima Platonen liburuetan".

Gero Morlaix-en egin zuen egonaldi bat eta Baionara izendatu zuten.

1940-ean gerrara joan zan berriz ere: "Chef de bataillon au 7e Tirailleurs Marocains".

1942-an kargu aundi bat eman zioten: "Inspecteur Départemental à la Jeunesse et aux Sports".

Geroago Parisen egon zan eta bertako Euskaldun biltzarretan etzan alper egoten eta Euskalzaleen buruzagia izan zan.

Berriz Baiona-ra itzuli zan eta 1955 urtean "Musée Basque"-ko buruzagi izendatu zuten.

Zenbait liburu argitaratu ditu: "Un peuple qui chante", "Meubles et ensembles basques", "Vues du Pays Basque". Artikuluak ere bai. Aren itzaldi batzuk dira: "Importance de la Tradition", "La sorcellerie au Labourd", "L'influence de l'Encyclopédie en Pays Basque", "Les Pastorales souletines", "Le basque et les Savants", eta abar. Aibat batasun eta alkartadetan parte artzen zuen. Bertsolarien juzgalari ere sartu zuten.

ELADIO ESPARZA AGUINAGA (1888-1961)

Nació en Lesaca el 18 de febrero de 1888, y desde principios de este siglo hasta algunos años antes de morir, el 23 de marzo de 1961, estuvo intensamente dedicado al periodismo. Sólo trabajo, por esta razón, se halla diseminado en los periódicos de nuestra región y principalmente en "Diario de Navarra", del que fue redactor-jefe desde 1929. Ya de antes había sido colaborador asiduo. Sus temas predilectos fueron siempre los problemas espirituales y económicos del país. También en temas de cultura destacó por su actividad, la que se refleja principalmente en el Boletín de la Institución Príncipe de Viana, de la Diputación Foral de Navarra, y de la que fue su director desde la fundación, en 1940. Son importantes sus trabajos sobre las antiguas ferrerías de Navarra y el fuero e historia del reino pirenaico. Obtuvo relevantes galardones dentro y fuera de Navarra. De sus obras son notables: sus novelas "Nere", "La Dama del Lebrel Blanco" y "La Novia", y su biografía sobre el gran santo navarro "Nuestro Francisco Javier". Honró la lengua de su estirpe y la Academia le hizo de los suyos. Y así, apaciblemente, murió una tarde en su casa de Lesaca, en la biblioteca, y rodeado de sus hijos y oreado por el aire viejo y entrañable del paisaje que tanto amó.

J. Aguerre

GREGORIO MAIDAGAN (1891-1961)

Arechavaleta-n jaio zan 1891 martxoaren 12-an. Bilbon il 1961 martxoaren 30-ean.

Gazteiz-eko Seminariora bere apez estudioak egitera joan baiño leen urte batzuetan Gipuzkoako Baliairrain-en egon zan apez batekin latiña ikasten. Ogetairu urtekin ordenatu zan Gazteiz-en eta Mondrandoen eman zuen lendabiziko meza.